

Ikusizko itzulpena euskara > gaztelania norabidean: hasiberri-aditu paradig mari buruzko azterketa pilotu bat

CLAUDIA MARÍA TORRALBA RUBINOS

Sarrera

Artikulu honetan, ikuspuntu berritzaile batetik helduko diogu euskara > gaztelania norabideko ikusizko itzulpenari. Hemen aurkeztuko dugun azterketa pilotuan, ikusizko itzulpenaren arloko hasi berri-aditu paradigma aztertuko dugu, edo, beste era batera esanda, hasiberrien eta adituen ikusizko itzulpenak konparatuko. Alderaketa horretan sakonduz, batzuen eta besteen arteko ezberdintasunak identifikatzea da helburu nagusia, baina ondorio pedagogikoak ere izan ditzake: hasiberrien artean hautemandako ahulguneetatik tiraka, haiei zuzendutako prestakuntza-programetan zer alderdi indartu beharko lirakeen ere iradoki baitezake azterketa honek.

Zer da ikusizko itzulpena?

Ikusizko itzulpena testu idatzi baten ahozko itzulpenean (Dragsted, Hansen eta Sørensen; Lee, 2012) oinarritutako teknika konplexu bat da (Agrifoglio, 2004). Dena den, ikusizko itzulpenaren izaera hasierahasieratik izan da adituen artean eztabaidagai, eta oraindik ez da erantzun bateraturik lortu. Zenbaitek itzulpenaren eta interpretazioaren arteko hibridoa dela uste dute (Obidina, 2015), ikusizko *inputa* eta ahozko *outputa* konbinatzen dituelako. Ildo horretan, Lambert-ek (2004) proposatzen du idatzizko itzulpen mota jakin bat zein interpretazioaren aldaera bat izan daitekeela. Hala ere, aditu gehienek uste dute gertuago dagoela interpretaziotik itzulpenetik baino

(Jiménez Ivars eta Hurtado Albir, 2003; Jiménez Ivars, 2008), bai baititu interpreta- zioari berezkoak zaizkion ezaugarri batzuk: besteak beste, denboraren presioa, aurrea hartu beharra, ideiak biribiltzeko irakurtzea eta ahozkotasuna bera (Lambert, 2004), baita jarduerak eskatzen dituen ulermen eta ekoizpen mota eta interpretazioan erabili ohi diren estrategiak ere (Li, 2015).

Zentzu horretan, beste aditu batzuek diote ikusizko itzulpena interpretazio mota bat dela berez (Herbert, 1952; Lambert, 2004; Lee, 2012). Denbora luzez aldibereko interpretazioaren aldaera bat zela aldarrikatu zuten zenbaitek (Herbert, 1952; Shiryaev, 1979 Čeňková, 2010etik hartua), baina gaur egun interpretazio mota independen- tetzat hartzen da, oro har; izan ere, ikusizko itzulpenaren eta aldibereko eta esan osteko interpretazioaren *inputak* ezberdinak dira, eta, ondorioz, baita jarduera horietan erabi- litako prozesu kognitiboak, estrategiak eta memorian gordetzen den informazio kanti- tatea ere.

Jarduera honen izaeraren inguruko ez- tabaidak bizirik dirauen arren (Agrifoglio, 2004; Setton eta Motta 2007), azken urteotan, ikusizko itzulpenak garrantzi handiagoa hartu du hezkuntzan, testuinguru profesio- naletan eta hizkuntzen ikerketan, batez ere merkatuaren eskaera aldakorreatatik eta, besteak beste, pedagogiaren, teknologiaren, hizkuntza-merkatuaren, negozioen eta na- zioarteko merkataritzaren alorretan izan di- ren garapenengatik (Ersozlu, 2005). Ikusiz- ko itzulpenarekiko interesa handituz doan neurrian, teknika konplexu horri buruzko ikerketa ere ugartzen doa, baina oraindik

azterketa gutxi dago ikusizko itzulpenaren aplikazioen inguruan (Krapivkina, 2018).

Bibliografiaren arabera, ikusizko itzulpe- na asko erabiltzen da itzulpengintzaren eta interpretazioaren alorrean, hala testuinguru akademikoetan nola testuinguru profesio- naletan: itzulpen-industrian (Jiménez Ivars, 2008; Dragsted eta Hansen, 2009), loturaz- ko interpretazioan (Gile, 1995; Setton eta Motta 2007; Lee, 2012) eta hizkuntzen iker- ketan (Moser-Mercer, 1995; Lee, 2012).

Aipatu bezala, ikusizko itzulpena jar- duera konplexu bat da (Standfield, 2008), barneratutako hainbat gaitasun eta trebe- zia espezifikoki menperatzea eskatzen due- na (Agrifoglio, 2004). Hori dela eta, aditu askok uste dute ikusizko itzulpena beste interpretazio mota batzuetatik bereizita ira- katsi beharko litzatekeela itzulpengintzako eta interpretazioko irakaskuntza-programa guztietan (Li, 2015).

Horren harira, ez dugu ahaztu behar berriazko praktika kontzientea ezinbes- tekoa dela hasiberriak trebatu eta aditu bihurtzeko, ikusizko itzulpenaren arloan nahiz, oro har, diziplina guztietan (Eric- son, 2000). Are gehiago, sarritan pentsatzen da hasiberri-aditu paradigma *continuum* bat dela, eta, beraz, artikulu honetan aurkeztu- ko dugun azterketa pilotuak hasiberriek eta adituek ikusizko itzulpenak egiterakoan di- tuzten ezberdintasunak identifikatzen lagun dezake. Horri esker, ikusizko itzulpenaren pedagogian moldaketak egin litezke pro- gramen edukiak ikasleen beharrianetara egokitzeko.

Ikusizko itzulpeneko beharrezkoak diren gaitasun eta trebeziak

Argi dago ikusizko itzulpenak ondo egiteko gaitasun multzo aurreratu bat barnerratu behar izan behar dutela interpreteek aldezturik (Shreve, Lacruz eta Angelone, 2010); are gehiago, jarduera hain da konplikatu, ezen interprete batek egin beharreko zereginik konplexuena dela esatera ere iritsi baitira aditu batzuk (Standfield, 2008).

Lehenik eta behin, irakurketa analitiko azkarra egiteko eta informazioa hizkuntza batetik bestera arin pasatzeko gaitasuna behar da (Li, 2014, 2015). Hori bereziki konplikatu da idatzizko testuen ezaugarri diren esaldi luze eta astunen kasuan. Gainera, ekoizpena erregularra eta etengabea izan dadin, interpretearen begiek beti aritu behar dute intelektualki prozesatzen eta esaten dena baino aurrerago (Weber, 1990). Hori ezinbestekoa da, Angelellik esan bezala (1999), xede-hizkuntzan irakurtzen ari delako inpresioa eman behar baitu interpreteak.

Memoria ere hartu behar da aintzat. Ikusizko itzulpenean egin beharreko memoria-esfortzua aldebereko eta esan osteko interpretazioan egin beharrekoa baino txikiagoa bada ere (Viezzi, 1989; Viezzi, 1990; Agrifoglio, 2004), interpreteak zenbait informazio gorde behar du memorian, esanahi-unitate oso bat identifikatzeko gai den arte. Esfortzua txikiagoa da, alde batetik, informazioa ikusgai dagoelako denbora guztian, eta, bestetik, epe laburreko memorian beste entzumen-ariketa batzuek baino informazio gutxiago gordetzea eskatzen duelako (Li, 2015). Dena den, interfe-

rentzia bisuala arazo-iturri ere izan daiteke (Lambert, 2004; Shreve, Lacruz eta Angelone, 2010). Gainera, norberaren ekoizpena ere kontrolatu behar da.

Gauzak horrela, demostratu da orain arte aipatutako horien guztien arteko koordinazioa (irakurmena, epe laburreko memoria, ekoizpena eta monitorizazioa) interpreteen kezka nagusietako bat dela (Pöchhacker, 2004; Lee, 2012).

Zailtasun guztiak gorabehera, zenbait ikerketak frogatu dute ikusizko itzulpenek aldebereko eta esan osteko interpretazioek baino itzulpen zehatzagoak ematen dituztela (Agrifoglio, 2004; Lambert, 2004; Jiménez Ivars, 2008; Lee, 2012). Are gehiago, Dragsted eta Hansen-ek (2009) iradoki dute ikusizko itzulpenak idatzizko itzulpen batzuk baino zehatzagoak direla. Zehatztasun-maila altuagoa izateaz gain, badirudi ikusizko itzulpenak hasiberri nahiz interprete profesionaleri ematen dizkien onurak ukaezinak direla.

Interpreteentzako onurak

Hainbat adituren arabera, ikusizko itzulpenak egiten dituzten interpreteek hobetu egiten dituzte beren jendaurrean hitz egiteko eta oharrak irakurtzeko gaitasunak, birformulaketaren eta parafrasiaren bitartez (Curves *et al.*, 1986; Weber, 1990; Moser-Mercer 1995; Ilg eta Lambert, 1996; Agrifoglio, 2004). Ez hori bakarrik: beren aldebereko eta esan osteko interpretazioak ere hobetzen dituzte, «adierazpenari, kalitateari, mezuaren zehatztasunari, esaldi luze eta konplexuak prozesatzeko gaitasunari eta (aldebereko interpretazioan) segmentazioa

eta aurre-hartze teknikak erabiltzeari dago-kionez» (Li, 2015).¹

Gainera, interpreteei azkar erreakzionatzen lagun diezaieke (Agrifoglio, 2004), eta, prestakuntza-fasean, ikusizko itzulpenak beren espezializazio-eremutik at dagoen terminologia teknikoari aurre egiten ere irakats diezaieke (Weber, 1990). Azkenik, ikasleengan beren lan-hizkuntzen arteko ezberdintasun sintaktiko eta estilistikoenguruko kontzientzia pizteko erabil daiteke ikusizko itzulpena (Lee, 2012).

Goian aipatutako onura horiek guztiak ikusita, ez da harriztekoa ikusizko itzulpena interpreteen prestakuntza-programetan sartzeko aldarrikatzea. 1990eko hamarkadan jada, Weberrek (1990) esan zuen: «Ikusizko itzulpenaren irakaskuntza *sine qua non* da interpreteen prestakuntza-programa guztietan».² Egungo aditu asko bat datoz harekin (Sawyer, 2004; Li, 2015; Thawabteh, 2015; Krapivkina, 2018). Gainera, praktikatzeko modu kontzientea ere bada.

Berriarazko praktika kontzientearen garrantzia

Izan ere, maisutasuna egoera dinamiko (Kuchinke, 1997) edo prozesutat (Bereiter eta Scardamalia, 1993) hartzen dute adituek. Prozesu horretan, banakoen maisutasuna ez da berezkoa, baizik eta prestakuntzaren eta esperientziaren bitartez eskuratutakoa (Dreyfus eta Dreyfus, 1986). Askok uste dutenaren kontra, maisutasuna ez dator

ezagutza metatzetik (Ericsson, 2005): aditu eta hasiberrien arteko aldea alor espezifiko batean hobekuntzak egiteko berriarazko esfortzu kontzientearen emaitza da (Ericsson, 2000; Shreve, 2006). Horra hor, beraz, hasiberri-aditu paradigman funtsa. Hala ere, interesgarria da aipatzea ezberdintasun horiek oso erabilgarriak direla hasiberriek gaitasun espezifikoak bereganatu eta aditu bihurtzeko jarraitzen duten prozesua aztertzeke.

Ikusizko itzulpenaren arloko hasiberri-aditu paradigman azterketaren aurrekariak

Hasiberri-aditu paradigma ez da aztergai nagusi izan ikusizko itzulpenaren arloan. Dena den, badaude gai horren inguruko azterketa batzuk. Bereziki aipatzekoak dira Moser-Mercer (1995) eta Lee-ren (2012) lanak.

Aurrekari horietatik ondoriozta daiteke adituek hasiberriek baino azkarrago irakurtzen eta analizatzen dutela sorburu-testua, eta itzulpenaren ekoizpena bera ere azkarrago dela adituen kasuan. Gainera, akats gutxiago eta arinagoak egiten dituzte. Dena den, akats horiek naturaltasun handiagoz zuzentzen dituztela hauteman zuten ikerlariak. Horrez gain, testu idatziak gutxiago mugatzen dituzte adituek hasiberriek baino, eta badirudi errazago pasatzen direla idatzitik ahozkoa. Ildo beretik, gehiago erabiltzen dute maila makrotestuala. Horrenbestez, as-

1. «In terms of delivery, quality, message accuracy, efficiency in processing long and complex sentences, and the use of segmentation and anticipation techniques (in simultaneous interpreting)».

2. «The teaching of sight translation is a sine qua non for any interpreter training program».

katasun handiagoz egiten dituzte gehikuntzak (batez ere lokailuak edo adjektibo kalifikatzaileak), eta gehiago erreparatzen diote esanahiari formari baino. Moser-Merceren (1995) arabera, esperientzia eta prestakuntza handiagoa dutelako izan daiteke hori.

Ostera, hasiberriek maila mikrotestu-lean egiten dute lan, eta hitz guztiak itzul- tzeke joera dute. Arazo gehiago dauzkate irakurketa eta ekoizpena koordinatzeko, eta oro har ez dute gehikuntzarik egiten. Alabaina, oro har adituek ikusizko itzulpen ho- beak egin zituzten arren, Leeren azterketako hasiberri batzuek adituak gainditu zituzten alderdi jakin batzuetan (ekoizpen-denbora eta etenen maiztasuna, zehazki).

Azkenik, aipatzekoa da bai hasiberriek bai adituek monitorizatzen dutela beren ekoizpena, denek zuzentzen baitituzte egin- dako akatsak, horretarako estrategia ezber- dinak erabiltzen dituzten arren.

Azterketa

Gaiaren inguruko bibliografia sakon aztertu eta gero, ondorioztatu genuen hasiberri-adi- tu paradigma oso gutxi landu dela ikusizko itzulpenaren arloan, eta, edozein kasutan, Europako hizkuntza hegemonikoen arteko hizkuntza-konbinaketa gutxi batzuk baino ez direla jorratu. Horregatik, euskara > gaz- telania norabideko ikusizko itzulpena az- tertzeak ekarpenak egingo dizkio bibliogra- fian hautemandako hutsune horri, euskara hizkuntza gutxitua izateaz gain, azterketak agerian utz bailitzake euskal gizarte elebidu- naren egoera linguistiko, politiko eta sozial bereziak eragindako eta aurretik identifikatu gabeko hainbat estrategia, arazo eta joera.

Helburu hori buruan, artikulu honetan aurkeztuko dugun azterketa pilotuan, eus- kal interprete hasiberriek eta adituek euska- ra > gaztelania norabidean egindako ikusiz- ko itzulpenak konparatu eta analizatu dira; zehazki, honako parametro hauen arabera: irakurketa-abiadura, ekoizpen-abiadura, omisioak, gehikuntzak, akatsak eta etenal- diak (isilak eta soinudunak).

Azterketa hau metodologia kuasi-espe- rimentalean oinarrituta dago, parte-hartzai- leak eta baldintzak ez baitira ausaz aukeratu eta beraz aldakorrak baitira. Garrantzitsua da hasieratik argi uztea hori, esperimntua baldintza baitezake. Honako hauek izan dira, zehatz-mehatz, azterketaren xedeak, aurrekarietatik ateratako ondorioak abia- puntutzat hartuta:

1. Egiatzatzea ea adituen irakurketa- eta ekoizpen-abiadura hasiberriena baino handiagoak diren.
2. Zehaztea ea hasiberriek adituek baino omisio eta akats gehiago eta gehikun- tza gutxiago egiten dituzten.
3. Aztertzea talde bakoitzak egiten dituen etenaldi motak eta haien maiztasuna.

Parte-hartzaileak

Azterketa honetan, zortzi boluntariok har- tu zuten parte; bi adituk eta sei hasiberriek (Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradu- ko 4. mailako ikasleak), zehazki. Parte-har- tzaileek sexu, adin eta prestakuntza-maila ezberdinak zituzten, baina denek zuten iku- sizko itzulpenaren gaineko prestakuntza es- pezifikoa, eta hori izan zen azterketan parte hartzeko hautatuak izateko arrazoia. Gaine-

ra, denak ziren elebidunak, ama-hizkuntza ezberdinak zituzten arren: batzuek euskara, beste batzuek gaztelania eta beste batzuek euskara eta gaztelania.

Proba

Garrantzitsua da aipatzea parte-hartzaile guztiek proba aldi berean eta toki berean egin zutela; UPV/EHUko Letren Fakultateko interpretazioko laborategian, hain zuzen. Esperimenturako, 397 hitzeko testu bat eman zitzaizen parte-hartzaileei, eta 6 minutu eman zitzaizkien prestaketalanetarako. Ondoren, ikusizko itzulpena egiteko eskatu zitzaizen. Nafarroako Parlamentuko inbestidura-hitzaldi erreal baten transkripzioa zen, eta ez zen ariketa egiteko denbora-mugarik ezarri. Ondorioz, azken parte-hartzaileak bukatu zuenean eman zitzaion amaiera probari.

Testuari dagokionez, zenbait aldaketa egin genizkion ordenari, eta esaldi batzuk ezabatu. Aipatzekoa da diskurtso politikoen ezaugarriak eta terminologia jasotzen zituela testu horrek.

Parte-hartzaile guztiei proba egin baino bost egun lehenago jakinarazi zitzaizen nolakoa izango zen proba eta zein izango zen gaia.

Emaitza xehatuak

Irakurketa-abiadura: parte-hartzaileen % 50 gai izan zen prestaketarako eman zitzaizkien 6 minutuetan testu osoa irakurtzeko. Aditu biak zeuden lau parte-hartzaile horien artean, eta, beraz, testu osoa irakurtzeko astirik izan ez zuten guztiak hasiberriak izan

ziren. Zehazki, adituen batez besteko abiadura gutxienez 66 hitz/minutukoa izan zen (osorik irakurri zuten testua), eta hasiberriena, aldiz, 40 hitz/minutukoa.

Orokorrean, emaitzek erakutsi zuten adituek hasiberriek baino arinago irakurri zutela testua.

Ekoizpen-abiadura: oro har, adituen ekoizpen-abiadura hasiberriena baino handiagoa izan zen. Hori bai, hasiberri batek aditu batek baino lehenago bukatu zuen. Edonola ere, batez besteko datuei erreparatuta, adituen eta hasiberrien ekoizpen-abiaduraren arteko aldea nabarmena izan zen (hasiberriek 79,5 hitz/minutuko eta adituek, berriz, 122,5 hitz/minutuko). Aipatzeko modukoa da hasiberrien artean aldagarritasun handia egon zela parametro honetan: arinenak 6 minutu eta 4 segundo behar izan zituen ikusizko itzulpena bukatzeko (106 hitz/minutuko) eta motelenak, aldiz, 10 minutu eta 55 segundo (57 hitz/minutuko).

Omisioak: batez beste, adituek hasiberriek baino omisio gutxiago egin zituzten. Omisio kopururik txikiena adituetako batek egin zuen (1), eta handiena, berriz, hasiberrietako batek (12). Interprete hasiberri bakar batek egin zituen adituek baino omisio gutxiago.

Gehikuntzak: batez besteko emaitzei erreparatuta, adituek ikasleek baino gehikuntza gehiago egin zituzten (9,5 eta 1,66, hurrenez hurren). Alabaina, adituetako batek ez zuen ia gehikuntzarik egin, eta besteak, aldiz, 19.

Akatsak: bi akats mota aztertu genituen: akats larriak eta akats arinak. Akats larritzat hartu genituen edukiaren esanahiari eragi-

ten ziotenak, eta arintzat, aldiz, hizkuntza-akatsak. Aldi berean, akats larriak hiru azpitaldetan banatu genituen: *non-sens* (zentzurik gabeak), *faux sense* (jatorrizko testuaren esanahia desbideratzen dutenak) eta *contre sens* (jatorrizko testuaren esanahiaren kontrakoa adierazten dutenak). Irizpide horiek PACTE itzulpen-gaitasunen eredutik atera genituen, aurretiaz ere idatzizko itzulpenak aztertzeko erabilitakoak.

Emaitzek agerian utzi zuten hasiberriek adituek baino akats gehiago egin zituztela, bai akats larriei, bai akats arinei dagokienez. Zehatzago, hasiberriek 6,6 akats larri eta 11,3 akats arin egin zituzten batez beste, eta adituek, aldiz, 2,5 eta 2,5, hurrenez hurren. Azterketa xehatuak agerian utzi zuen akatsik ohikoena *faux sense* edo desbideratzeak direla adituen eta hasiberrien kasuan. Akatsik ezohikoenak, aldiz, *contre sens* edo jatorrizkoaren esanahiaren kontrakoak izan ziren. Akats arinei dagokienez, terminologia-arazoak nagusitu ziren hasiberrien artean. Adituek, berriz, komunztadura arazoren bat izan zuten.

Etenak: orokorrean, hasiberriek adituek baino askoz eten gehiago egin zituzten (batez beste 39 eta 18, hurrenez hurren). Alabaina, azterketa xehatuak erakutsi zuen adituek hasiberriek baino eten soinudun gutxiago egin zituztela (13,5 eta 4,66, hurrenez hurren). Eten soinuduntzat hartu ditugu *mmm* eta *aaa* betegarriak, esaterako. Kasu honetan ere, aldakortasun handia dago hasiberrien artean: bik eten soinudun bakarra egin zuten, eta gehien egin zituenak, aldiz, 19 egin zituen.

Eten isiletan, hasiberriak nagusitu ziren, argi eta garbi: 34 eten egin zituzten batez

beste, eta adituek, aldiz, 4,5. Logikoki, zenbaki horiek zuzenean daude erlazionatuta taldeetako bakoitzak isilik eman zuen denborarekin: hasiberriek 1 minutu eta 56 segundo eman zituzten isilik, eta adituek bakarrik 11 segundo (batez beste).

Eztabaida

Irakurketa- eta ekoizpen-abiadura

Azterketa honetan irakurketa- eta ekoizpen-abiadurari dagokienez lortutako emaitzak bat datoz Moser-Merceren (1995) eta Leeren (2012) lanetako ondorioekin: oro har, adituak hasiberriak baino azkarragoak dira. Dena den, aurreko atalean ikusi dugu hasiberri batek aditu batek baino lehenago bukatu zuela ikusizko itzulpena, eta, beraz, hori ere bat dator Leek aipatutakoarekin: hasiberriek adituak gainditzen dituzte zenbait alderditan.

Hasiberrien arteko aldakortasuna oso deigarria izan zen. Parte-hartzaileen bi hurrenek ez zuten testua irakurtzen bukatu, eta hori nahiko harrigarria da aintzat hartzen baldin badugu denak zirela elebidunak. Gure azterketako hasiberrien batez besteko irakurketa-abiadura 49 hitz/minutukoa izan zen, Moser-Merceren azterketakoa 60 hitz/minutukoa (frantsesez) eta 45 hitz/minutukoa (alemanez) eta Leerena 83 hitz/minutukoa (ingelesez). Ikus daitekeenez, gure emaitzek alemaneko emaitzen antza dute, eta bi arrazoigatik izan daiteke hori: hizkuntza-tipologiagatik, batetik, eta prestakuntza-denboragatik eta berariazko praktika kontzientegatik, bestetik.

Euskarak eta alemanak antzeko egitura dute; izan ere, badirudi subjektu-objektu-aditz egiturak direla nagusi euskaraz eta alemanez (esaldi nagusietan izan ezik) (de Rijk, 1969). Are gehiago, Greenberg-en sailkapenaren arabera, alemana eta euskara subjektu-objektu-aditz motako hizkuntzak dira (Greenberg, 1963). Horrek iradokitzen du egitura sintaktiko ezberdinek irakurketa-teknika, prozesu kognitibo eta esfortzu ezberdinak eskatzen dituztela; ondorioz, irakurketa- eta ekoizpen-abiadurak ere alda daitezke.

Sintaxiari lotutako arrazoi horrez gain, abiaduren aldeak iradoki dezake esperimentuaren diseinuak ere baldintzatu dituela emaitzak: parte-hartzaileek bazekiten testua prestatzeko denbora izango zutela, eta, beraz, testua irakurri beharrean segmentazioa edo bestelako estrategiaren bat aplikatzen emango zuten denbora, beharbada. Hori horrela balitz, berariazko praktika kontzientea faltak azalduko luke zergatik behar izan duten horrenbeste denbora testua segmentatzeko.

Laburbilduz, atal honetan lortutako emaitzak aurreko azterketetakoekin bat datozen arren, sakonago ikertu beharko litzaiteke zein izan diren elebidunen irakurketa-abiaduran eragina izan duten faktoreak.

Omisioak eta gehikuntzak

Omisioei eta gehikuntzei dagokienez, emaitzak bat datoz bibliografian aurki daitezkeen emaitzekin: oro har, hasiberriek adituek baino omisio gehiago eta gehikuntza gutxiago egin zituzten. Alabaina, adituen gehikun-

tzen datua engainagarria izan daiteke, adituetako batek ez baitzuen gehikuntzarik egin, eta besteak, aldiz, 19. Joera orokorra gehikuntza gutxi egitea izan zen, eta hori orain arteko emaitzen kontra doa.

Horretarako arrazoietako bat testuaren beraren izaera izan daiteke, ez baitzen testu espontaneo bat (Füngen, Waibel eta Kolss, 2007), baizik eta gutxi gorabeherako eske-ma bati jarraitzen ziona. Europako Parlamentuko itzulpen-zerbitzuan gertatzen den bezalaxe, beharbada interpreteek kontzienteki errefusatuko zioten gehikuntzak egiteari, itzulpen literalaren eta efektu baliokidearen alternatibaren arteko dilemaren aurrean (Wilson, 2003).

Garrantzitsua da aipatzea omisioak eta gehikuntzak askoz sakonago aztertu beharko lirakeela etorkizunean, sailkapen bat baino gehiago baitaude eskuragarri, adituen eta hasiberrien arteko omisio eta gehikuntzen arteko aldeak zehaztasunez deskribatzea ahalbidetuko luketenak.

Akatsak

Bibliografiak iradokitakoaren ildotik, hasiberriek adituek baino akats gehiago egin zituzten, eta alde handia egon zen parametro honetan. Anlisi xehatuak agerian utzi zuen hasiberriek egindako akatsik ohikoenak *faux sense* edo esanahiaren desbideratzeak izan zirela. Horrek iradokitzen du testua irakurtzeko denbora-eskasiak eragindako ulermen-arazoak egon daitezkeela horren atzean (Bell, 2001, Klaua eta Guthrie, 2008), baita idatzitako ideiak berriz segmentatzeko antolaketa-zailtasunak (Bell,

2011) eta irakurketa-abiadura motela ere (Bell, 2011). Horrez gain, hasiberriek testu mota horiekin duten harreman eskasa eta iruditegi falta (Dugueldre, 2002) ere izan daitezke beste arrazoi potentzial batzuk. Dena den, positiboa da ikustea testuaren esanahia guztiz aldatzen duten akatsak (*con-tre sens*) ezohikoenak izan zirela.

Akats arinei dagokienez, badirudi hasiberriek lexikoarekin dituztela arazoak, eta horrek zentzua izango luke testu horiekiko esperientzia falta aintzat hartzen badugu (Standfield, 2008), baita berariazko praktika kontziente mugatua dutela kontuan hartuta ere.

Gainera, estresa eta parte-hartzaileen jarrera baldintza dezaketen beste faktore batzuek ere eragina izan dezakete emaitzetan (Elmes, Kantowitz eta Roediger, 2011).

Etenak

Parametro honek ordura arteko emaitza guztien kontrakoa adierazi zuen, hasiberriek ez baitzituzten adituek baino eten soinudun gehiago egin. Hori bai, askoz denbora gehiago eman zuten isilik, eta hori arau baten barneratzearen seinale izan daiteke: hasiberri guztiek egindako eten isilen zenbatekoak iradokitzen du eskolan landutako parametro bat dela eta eten soinudunak eten isilekin ordeztzen dituztela. Kontuan hartu behar da eten gehiegi egiteak publikoari eragozpenak eragin diezazkiokeela, eta ulermena ere oztopa dezakeela (Ahrens, 2005). Hori gertatu zitzairen, hain zuzen, hasiberri batzuei, guztira 2 minutu baino gehiago eman baitzituzten isilik.

Beste ezaugarri deigarri batzuk

Hasieratik aurreikusita ez zeuden bi elementu aipatuko ditugu atal honetan: lehena, interferentzia bisuala, eta bigarrena, gaztelaniazko *usted* formalaren erabilera falta.

Ikusizko interferentziei dagokienez, ohi-koagoak dira ikusizko itzulpenetan beste interpretazio mota batzuetan baino, testua etengabe baitago haien begien aurrean. Alabaina, kasu honetan, aintzat hartuta parte-hartzaileak elebidunak direla, *code switching* edo hizkuntza aldatetaren fenomenoak ere egon daiteke horren atzean.

Gaztelaniazko *usted* formalari dagokienez, hasiberriek gutxi erabiltzeko joera erakutsi zuten, eta adituetak batek ere *tú* informala erabili zuen behin *usted* formalaren orde. Bokatio formal hori itzulpenetan ez jartzeko joera dago denbora mugatuta dagoenean (Angermeyer, 2005), eta hori izan daiteke hemen gertatutakoa. Dena den, hasiberriek horrelako testuinguruetako lanean duten esperientzia falta ere izan liteke aipatutako fenomeno horren kausa, eta hori bat etorriko litzateke berariazko praktika kontzientearen eta hasiberrien eta adituen *continuum*aren arteko teoriarekin: zenbat eta gehiago praktikatu, orduan eta ezagutza eta esperientzia-maila altuagoa izango du interpreteak, eta, beraz, aditu izatetik hurbilago egongo da.

Ondorioak

Ikerketa-lan honetan, interprete hasiberri eta adituen ikusizko itzulpenak konparatu eta aztertu eta gero, honako ondorio hauek atera ditzakegu ikerketa-galderei dagokienez:

1. Adituak hasiberriak baino azkarra-
goak dira irakurketa- eta ekoizpen-
abiadurari dagokienez.
2. Adituek hasiberriek baino omisio eta
akats gutxiago eta gehikuntza gehiago
egiten dituzte. Dena den, talde bieta-
ko interpreteek egiten dituzte akatsak
eta denek monitorizatzen dute beren
ekoizpena, gai baitira akats horiek zu-
zentzeko.
3. Adituek hasiberriek baino eten gu-
txiago eta laburragoak egiten dituzte.
Hala ere, hasiberriek eten isil gehiago
egin dituzte, eta adituek eten soinu-
dun gehiago.

Ondorio horiek bat egiten dute Moser-Merceren (1995) eta Leeren (2012) ondorio gehienekin: adituak hasiberriak baino azkarra-
goak dira; gehikuntza gehiago eta omisio, akats eta eten gutxiago egiten dituzte, eta badirudi erraztasun handiagoa dutela idatzizkotik ahozkoa pasatzeko. Alabaina, ikerketa honek agerian utzi du hasiberriek adituak gainditzen dituztela parametro batzuetan.

Hasiberriei dagokienez, badirudi arazo gehiago dituztela irakurketa eta ekoizpena koordinatzeko, eta, parametro batzuetan adituak gainditzen dituzten arren, oro har, denbora gehiago behar dute ikusizko itzulpena egiteko. Horrez gain, adituek baino akats gehiago egiten dituzte, sorburu-testuaren esanahia desbideratzen duten motakoak batez ere. Ildo beretik, eten gehiago eta luzeagoak egiten dituzte. Bide batez, aipatzeko modukoa da aldakortasun handiagoa dagoela hasiberrien artean, adituen artean baino.

Emaitzetan ikusi dugunez, *usted ez erabiltzeko joera nabarmendu da azterketa honetan, eta elebidunen code switchingarekin erlazionatuta egon daiteke hori.*

Hautatutako testu mota dela eta, ezin izan dugu ondorioztatu adituek hasiberriek baino gehiago erreparatzen ote dioten edukiari, talde bietako interpreteek egin baitituzte ia hitzez-hitzeko itzulpenak.

Azkenik, oso interesgarria da ikustea interprete guztiak monitorizatzen dituztela beren hitzak, eta horrek Moser-Mercer (1995) eta Leeren (2012) ondorioak konfirmatzen ditu. Dena den, aipatutako ondorio horiek guztiak espezifikoak eta mugatuak dira, eta ezin dira orokortu.

Etorkizunerako ikerketa-ildoak

Artikulu honetan aurkeztutako ikerketan, ikusizko itzulpenaren 6 parametro aztertu ditugu, eta lortutako emaitzak askotarikoak izan dira. Ageriko arrazoiengatik ondorioak orokortu ezin diren arren, esperimentu hau beste ahozko nahiz zeinu bidezko hizkuntza-konbinaketa batzuetan errepikatu ahal izango litzateke, emaitzak konparatze aldera. Are gehiago, beste testu mota bat erabiltzeak ere ekarpenak egingo litzeki arlo honetako ikerketari. Horrez gain, beste parametro batzuk erabilia ere, emaitzak ezberdinak bezain interesgarriak izango lirarteke seguruenik.

Parametro berak oinarritzat hartuta, azterketa honek beste ikerketa-ildo batzuei ere irekitzen dizkie ateak: zer gehikuntza eta omisio mota egiten dituzte hasiberriek eta adituek? Eta zer estrategia erabiltzen dituzte hasiberriek eta adituek inkontzienteki? Gal-

dera horiei erantzutea oso aberasgarria litzateke, azterketa honen mugek ez baitute alderdi horietan sakontzeko aukerarik eman.

Gainera, oso gomendagarria litzateke parte-hartzaileen elebitasuna eta itzulpengintza eta interpretazioa uztartzea, ez baita askorik egin arlo horretan eta ezin izan baitugu zehaztu zer harreman dagoen elebitasunaren eta irakurketa-abiaduraren artean. Euskal egoera soziolinguistikoa berezia eta bakarra da munduan, eta merezi du horretan sakontzea.

Lan honen ekarpeni dagokienez, azterketa honi esker, beste lan bat aurki daiteke ikusizko itzulpeneko hasiberri-aditu paradigaren gaineko bibliografian. Gainera,

hasiberriek arazo eta zailtasun handiagoak dituzten alderdiei erreparatuta, estrategia eta jarduera berriak ezarri ahal izango lirateke prestakuntza-programetan beren ekoizpenak hobetu eta hasiberri-aditu paradigmaman aurrera egiten laguntzeko.

Bukatzeko, garrantzitsua da gogoraraztea itzulpengintza eta interpretazioko diziplinako ikerlanak egiterakoan ez dugula inoiz perspektiba galdu behar: «Itzulpengintzaren eta interpretazioaren helburua da mezuak xede-entzuleengan jatorrizko hizlari batek (ahozko hizkuntza nahiz zeinu-hizkuntza bidez) xede-entzuleengan izan nahi duen eragin bera izatea» (Angelelli, 2000).³

3. «The goal of translation and interpretation is that a message makes the same impact on the target audience that a speaker/signer intends for an audience of her/his same language».

BIBLIOGRAFIA

- AHRENS, Barbara (2005). «Prosodic phenomena in simultaneous interpreting: A conceptual approach and its practical application», *Interpreting*, 7(1), 51.-76. or.
- AGRIFOGLIO, Marjorie (2004). «Sight Translation and Interpreting: A Comparative Analysis of Constraints and Failures», *Interpreting*, 6(1), 43.-67. or.
- ANGELELLI, Claudia Viviana (1999). «The role of reading in sight translation», *The ATA Chronicle (Translation Journal of the American Association of Translators)*, 28(5), 27.-30. or.
- (2000). «Interpretation as a Communicative Event: A Look through Hymes' Lenses», *Meta*, 45(4), 580.-592. or.
- ANGERMEYER, Philipp Sebastian (2005). «Who is 'you'? Polite forms of address and ambiguous participant roles in court interpreting», *Target*, 17(2), 203.-226. or.
- BELL, Timothy. (2001) «Extensive reading: Speed and comprehension», *The Reading Matrix*, (1) (Kontsulta: 2018-06-27).
- BEREITER, Carl eta Marlene SCARDAMALIA (1993). *Surpassing Ourselves. An Inquiry into the Nature and Implications of Expertise*, Chicago eta La Salle: Open Court.
- ČEŇKOVÁ, Ivana (2010). «Sight translation: Prima vista», in Gambier, Yves eta Van Doorslaer, Luc. (ed.) *Handbook of Translation Studies*. Bol. 1, Amsterdam: John Benjamins, 320.-323. or.
- CURVERS, Philippe, KLEIN, Jean, RIVA, Nina eta Claude WUILMART (1986). «La traduction à vue comme exercice préparatoire et complémentaire à l'interprétation de conférence», *Cuadernos de Traducción e Interpretación*, 7, 97.-116. or.
- DE RIJK, Rudolf Pieter Gerardus (1969). «Is Basque an S.O.V. language?», *Fontes Linguae Vasconorum*, 1, 319.-351. or.
- DEGUELDRE, Christian (2002). «Le rôle de l'imagerie dans la communication réalisée par un interprète», *Meta*, 47(1), 56.-86. or.
- DRAGSTED, Barbara eta Inge Gorm HANSEN (2009). «Exploring Translation and Interpreting Hybrids. The Case of Sight Translation», *Meta*, 54(3), 588.-604. or.
- DRAGSTED, Barbara, HANSEN, Inge Gorm eta Helene SØRENSEN. (2009). «Experts exposed», in Mees, Inger, Alves, Fabio eta Susanne Göpferich (arg.) *Methodology, Technology and Innovation in Translation Process Research: A Tribute to Arns Lykke Jakobsen*, Kopenhagen: Samfundslitteratur, 293.-317. or.
- DREYFUS, Hubert eta Stuart DREYFUS (1986). *Mind over Machine: The Power of Human Intuition and Expertise in the Era of the Computer*, New York: The Free Press.

- ELMES, David, KANTOWITZ, Barry eta Henry L. ROEDIGER (2011) *Research Methods in Psychology*. 9. edizioa. Cengage Learning.
- ERICSSON, K. Anders (2000). «Expertise in interpreting: An expert-performance perspective», *Interpreting*, 5(2), 187.-220. or.
- (2005). «Recent advances in expertise research: a commentary on the contributions to the special issue», *Applied Cognitive Psychology*, 19(2), 233.-241. or.
- (2006). «The Influence of Experience and Deliberate Practice on the Development of Superior Expert Performance», in Ericsson, K. Anders., Charness, Neil, Feltovich, Paul eta Robert R. Hoffman (arg.) *The Cambridge handbook of expertise and expert performance*, New York: Cambridge University Press, 683.-703. or.
- ERSOZLU, Elif (2005). «Training of Interpreters: Some Suggestions on Sight Translation Teaching», *Translation Journal*, 4.
- FÜGEN, Christian, WAIBEL, Alex eta KOLSS, Muntsin (2007). «Simultaneous translation of lectures and speeches», *Mach Translat*, 21, 209.-252. or.
- GILE, Daniel (1995). *Basic concepts and models for interpreter and translator training*. Amsterdam/Filadelfia John Benjamins.
- GREENBERG, Joseph Harold (1963). «Some Universals of Grammar with Particular Reference to the Order of Meaningful Elements.», in Greenberg, Joseph Harold (arg.-) *Universals of Human Language*, Cambridge, Mass: MIT Press, 73.-113. or.
- HERBERT, Jean (1952). *Manuel de l'interprète. Comment on devient interprète de conférence*. Geneva: Georg.
- ILG, Gorm eta Silvye LAMBERT (1996). «Teaching consecutive interpreting», *Interpreting*, 1(1), 69.-99. or.
- JIMÉNEZ IVARS, María Amparo (2008). «Sight translation and written translation. A comparative analysis of causes of problems, strategies and translation errors within the PACTE translation competence model», *Forum*, 6(2), 79.-103. or.
- JIMÉNEZ IVARS, María Amparo and Amparo HURTADO ALBIR (2003). «Variedades de traducción a la vista. Definición y clasificación», *TRANS*, 7, 47.-57. or.
- KLAUDA, Susan Lutz eta John T. GUTHRIE (2008). «Relationships of Three Components of Reading Fluency to Reading Comprehension», *Journal of Educational Psychology*, 10(2), 310-321. or.
- KRAPIVKINA, Olga (2018). «Sight Translation and Its Status in Training of Interpreters and Translators'» *Indonesian Journal of Applied Linguistics*, 7(3), 695.-704. or.
- KUCHINKE, K. Peter (1997). «Employee Expertises The Status of the Theory and the Literature», *Performance Improvement Quarterly*, 10(4), 72.-86. or.

- LAMBERT, Silvye (2004). «Shared Attention during Sight Translation, Sight Interpretation», *Meta*, 49(2), 294.-306. or.
- LEE, Jieung (2012). «What Skills Do Student Interpreters Need to Learn in Sight Translation Training?», *Meta*, 57(3), 694.-714. or.
- LI, Xiandong (2014). «Sight translation as a topic in interpreting research: Progress, problems and prospects», *Across Languages and Cultures*, 15(1), 67.-89. or.
- (2015). «Designing a sight translation course for undergraduate T&I students: From context definition to course organization», *Revista Española de Lingüística Aplicada*, 28(1), 169.-198. or.
- MOSER-MERCER, Barbara (1995). «Sight translation and human information processing», in Neubert, Albrecht eta Gregory M. Shreve (arg.) *Basic issues in translation studies*, Kent, OH: Kent State University, 159.-166. or.
- MOSER-MERCER, Barbara, FRAUENFELDER, Uli H., CASADO, Beatriz eta Alexander KÜNZLI (2000). «Searching to define expertise in interpreting» in Hyltenstam, Kenneth eta Birgitta Englund-Domitrova (eds.) *Language Processing and Simultaneous Interpreting*, Amsterdam: John Benjamins, 107.-132. or.
- OBIDINA, Veronika. V. (2015). «Sight Translation: Typological Insights into the Mode», *Journal of Siberian Federal University. Humanities and Social Sciences*, 1(8), 91.-98. or.
- PÖCHHACKER, Frank. (2004). *Introducing interpreting studies*, Routledge.
- SAWYER, David. B. (2004). *Fundamental Aspects of Interpreter Education: Curriculum and Assessment*, Amsterdam / Filadelfia: John Benjamins.
- SETTON, Robin eta Manuela MOTTA (2007). «Syntacrobatics: Quality and Reformulation in Simultaneous-with-Text», *Interpreting*, 9(2), 199.-230. or.
- SHIRYAEV, Anatoly. F. (1979). *Posobie po sinkhronnomu perevodu. Frantsuzskij yazyk [Textbook of Simultaneous Interpreting: French]*, Moscow: Vysshaya shkola.
- SHREVE, Gregory M. (2006). «The deliberate practice: Translation and expertise», *Journal of Translation Studies*, 9(1), 27.-42. or.
- SHREVE, Gregory M., LACRUZ, Isabel and Erik ANGELONE (2010). «Cognitive Effort, Syntactic Disruption, and Visual Interference in a Sight Translation Task», in Shreve, Gregory M. and Erik Angelone (arg.) *Translation and Cognition*, Amsterdam/Filadelfia: John Benjamins, 199.-230. or.
- STANSFIELD, Charles W. (2008). *A Practical Guide to Sight Translation of Assessments*, Rockville, MD: Secon Language Testing, Inc.
- THAWABTEH, Mohammad (2015). «Difficulties of Sight Translation: Training Translators to Sight Translate», *Current Trends in Translation Teaching and Learning E.*, 2, 171.-195. or.

- VIEZZI, Maurizio (1989). «Information retention as a parameter for the comparison of sight translation and simultaneous interpretation: An experimental study», *The Interpreter's Newsletter*, 2, 65.-69. or.
- (1990). «Sight Translation, Simultaneous Interpretations and Information Retention», in Gran, Laura eta Taylor, Christopher. (arg.) *Aspects of Applied and Experimental Research on Conference Interpretation*, Udine: Campanotto Editore, 54.-60. or.
- WEBER, Wilhelm. K. (1990). «The Importance of Sight Translation in an Interpreter Training Program», in Bowen, David eta Bowen, Margareta (arg.) *Interpreting: yesterday, today and tomorrow*, American Translators Association, 44.-52. or.
- WILSON, Barry (2003). «The Translation Service at the European Parliament», in Tosi, Arturo. (arg.) *Crossing Barriers and Bridging Cultures, The Challenges of Multilingual Translation for the European Union*, Clevedon: Multilingual Matters, 1.-7. or.

Resumen

En este artículo se presenta un estudio piloto sobre el paradigma principiante-experto/a en el ámbito de la traducción a vista. Para ello, se han comparado seis aspectos concretos (velocidad de lectura, velocidad de producción, omisiones, adiciones, errores y pausas) de un ejercicio de traducción a vista euskera > castellano realizado por intérpretes principiantes y expertos, sin llevar a cabo, no obstante, ninguna evaluación sobre ellos, ya que el objetivo principal del estudio es identificar las diferencias entre principiantes y expertos con respecto a los parámetros establecidos para este análisis.

Résumé

Cet article présente une étude pilote sur le paradigme débutant-expert dans le domaine de la traduction à vue. Pour ce faire, on a comparé six aspects (vitesse de lecture, vitesse de production, omissions, ajouts, erreurs et pauses) propres à une traduction à vue (basque > espagnol) par des débutants et des experts, sans toutefois les évaluer, puisque l'objectif principal de cette étude est d'identifier les différences entre débutants et experts par rapport aux paramètres établis pour cette analyse.

Abstract

This article presents a pilot study on the beginner-expert paradigm in the field of sight translation. For this purpose, six specific aspects of sight translation from Basque into Spanish carried out by beginners and experts (reading speed, production speed, omissions, additions, errors, and pauses) were compared, though without evaluation. However, the main purpose of the study was simply to identify differences between beginners and experts with respect to the measured parameters.